

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK EZARRITAKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik. Hori guztia bat dator ordenantza honetan jasotako arauekin, eta tasek ere ordenantza osatzen dute.

2. artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. artikulua

1. Zergapeko egitatea da udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzea.

2. Ordenantza honek arautzen duen tasa loturarik gabekoa da, eta batera daiteke lurra, lurrazpia eta lurgaina okupatzeko beste kontzeptu batzuegatik edo tokiko eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ezar daitezkeen beste tasa batzuekin, bereziki dagozkion hirigintza lizentziak emateagatik exijitzen direnekin, hala dagokionean.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Zergapeko gisa, subjektu pasiboak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 34. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak, baldin eta lizentzia euren alde ematen bada, edota aprobetxamenduari onura ateratzen badiote, dagokion baimena izan gabe jarduten den kasuetan.

2. Ibilgailuak edo gurdiak espaloietan zehar igarotzeagatik erabilera publikoa edo aprobetxamendu berezia egiten bada, eta eraiki, mantendu, aldatu edo kentzen bada, ezarritako tasei dagokienez zergapekoaren ordezkotzat joko dira ibilgailuen aipatu sarreren finken eta lokalen jabeak, eta hala badagokio, kuotak ordainarazi ahal izango dizkiete onuradunei.

3. Herri administrazioek, autonomia erkidegoek eta tokiko erakundeek ez dute jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako tasak ordaindu beharrik, zehazki, zuzenean ustiatzen dituzten komunikaziorako herri zerbitzuei dagozkien aprobetxamenduengatik eta herritarren segurtasunarekin edo nazio defentsarekin harreman zuzena dutenengatik.

IV. ZERGA OINARRIA

5. artikulua

Zerga oinarria da jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzeko erabiltzen den unitate bakoitza, Eranskinean jasota dauden baldintzetan.

V. KUOTA

6. artikulua

1. Eranskinean ezarritakoarekin bat etorritz, zerga kuota tarifa zehatz bat aplikatuta ateratzen den zenbatekoa izango da, ondore horretarako adierazitako zenbateko finko bat, edota bi prozedurak batera aplikatutakoan ateratzen den zenbatekoa.

2. Erabilerak edo aprobetxamenduak kalteak eragin baditzake udal ondasunetan, udal administrazioak exijituko du bere eskura jartzea zentzuz egokitzat jotzen duen zenbatekoa kalteei aurre egiteko, egokia litzatekeen tasa ordaindu behar izatean eragin gabe.

3. Nolanahi ere, udal administrazioak ondasunak edo horien balioa ordeztu edo konpontzeko exijituko du, baldin eta kalteak konponezinak badira.

4. Udalak ezin izango ditu atal honek aipatzen dituen kalte-ordainak eta diru itzultzeak barkatu, ez zati batean, ez osorik.

VI. KUDEAKETA ETA DIRU BILKETA

7. artikulua

1. Tarifaren arabera exiji daitezkeen zenbatekoak eskatutako edo gauzatutako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira, Eranskinean zehazten diren hobarien kuota aintzat hartuta.

2. Udal lizentzia behar da gaiak edo elementuak instalatzeko, baita aurretik emandakoak aldatu, berritu, handitu edo murrizteko ere.

3. Zergapeko egitatearen izaeraren arabera, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako tasa sortu egingo da erabilera edo aprobetxamendua ematen denetik aurrera, edo emakidarik ez denean, aprobetxamenduari onura ateratzen zaionetik aurrera.

Tasaren izaera materiala dela-eta aldiari behin sortzen bada, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean izango da, eta zergaldiak urte naturalarekin egingo du bat, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo eteten den kasuetan izan ezik. Halakoetan, zergaldia egoera horretara egokituko da, eta beraz, kuota hainbanatuko da Eranskinean ezarritako baldintzetan.

4. Gaiak edo elementuak kendutakoan, interesdunek udal administrazioan aurkeztu behar dute erabileraren edo aprobetxamenduaren bajari buruzko aitorpena. Administrazioa ados baldin badago, aitorpenak ondoreak izango ditu Eranskinean ezarritako baldintzetan, eta tasak ordura arte aplikatuko dira. Aurka alegatzen den arrazoia edozein izanik ere, baja aurkezten ez bada, tasa ordaintzen jarraitu beharko da.

Baimenak aprobetxamenduaren iraupena zehazten ez badu, luzatutzat joko da bajaren aitorpena aurkezten ez den bitartean.

5. Aprobetxamenduen edo erabileren titulartasuna aldatzen bada, horien emakidadunak aditzera eman beharko dio udal administrazioari. Halaber, honako hauen berri emango du: titular berriaren datu pertsonalak nahiz helbidea, eta ordenantza honen ondoretarako behar bestekoak. Aipatutakoak jakinarazten ez badira, emandako lizentzia baliogabetu egingo da, eta baimen berria eskatu beharko zaio udal administrazioari.

6. Udalak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du, eta kasuan kasuko zenbatekoa sartu egingo da Eranskinean jasotako ordainarazpen bakoitzaren arau partikularrei jarraikiz.

7. Aprobetxamenduaren emakidadunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla-eta aprobetxamendua gauzatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

Berari egotzi ezin zaizkion bidezko arrazoiak tarteko interesdunak lizentzia erabiltzeari uko egiten badiu, administrazioak itzuli ahal izango dizkio harrezkero ordaindutako tasak, baldin eta emandako aprobetxamenduak beste aprobetxamendu batzuk eragotzi ez baditu.

8. Edozein arrazoi dela-eta sartu ez diren kuotak premiamenduaren bidez exijituko dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketa Araubideak agindutako moduan.

9. Ordenantza honetan araututako tasak kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzearekin lotutako guztiaren harira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

VII. HUTS EGITEN DUTEN PARTIDAK

8. artikulua

Huts egin duten partidatzat edo kreditu kobraezintzat hartuko dira premiamenduzko prozeduraren bidez kobratu ezin izan diren kuotak; horiek aitortzeko, dagokion espediente formalizatuko da.

VIII. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

9. artikulua

1. Udalak zehapen araubidea ezar dezake erabilera edo aprobetxamendua gauzatzeagatik aurretik lizentzia eskuratu gabe. Edonola ere, bidezkoak litezkeen beste maila batzuetako zehapenetan eta erantzukizunetan eragin gabe, ordaindu egin beharko dira erabilerak edo aprobetxamenduak baimenduta egotekotan egokiak litezkeen tasengatik zenbatekoak.

2. Zerga mailako arau-haustek kalifikatzeari eta kasuan kasu horiei dagozkien zehapenei dagokienez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraitu egingo zaio.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2017ko urriaren 24an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez aldatu da, 2018ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta hala jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte. Ordenantza Fiskal honen aldaketa partzialik egonez gero, aldatu gabeko artikuluek indarrean jarraituko dute.

Aurrekontuen foru arauetarako edo zuzenean aplikatu beharreko beste edozein arau edo xedapenetarako ezarritako tasaren araudian egindako aldaketek ordenantza fiskal honi dagokion isilbidezko aldaketa eragingo dute.

ERANSKINA

I) TOKIKO ERABILERA PUBLIKOKO LURRAK OKUPATZEA SAILGAIKIN, ERAIKUNTZAKO MATERIALEKIN, OBRA HONDAKINEKIN, HESIEKIN, ESKOREKIN, ALDAMIOEKIN, EDUKIONTZIEKIN, ETAB.

I. Kuota:

A. Obra hondakinak edota materialak uzteko edukiontziak:

- *Edukiontzi txiki bakoitzeko (2,5 m²): 16,33€/aste edo zati.*
- *Edukiontzi ertain edo estandar bakoitzeko (6 m²): 32,67€/aste edo zati.*
- *Edukiontzi handi bakoitzeko (10 m²): 43,55€/aste edo zati.*

B) Bide publikoak edo erabilera publikoko lurra okupatzen dituen edozein elementuren kasuan, metro koadro edo zatiko eta aste edo zatiko: 3,73€.

II. Prozedura:

1.- Okupazioaren eskatzaileak eskaeraren barruan zehaztu beharko ditu aurreikusitako epea eta bide publikoan okupatuko dituen metro koadroen kopurua.

2.- Okupatzea onetsi ondoren, tasa behin-behinean likidatuko da eskatzaileak aurreikusitako datetatik aurrera.

3.- Aldamioak ipiniz gero, okupazioa amaitzen denean, eskatzaileak Udalari jakinaraziko dio behin betiko likidazioa egiteko. Hasiera data izango da aldamio muntaketaren ziurtagiriak duen eguna, eta azken data izango da eskatzaileak hori jakinarazten duen eguna

Okupazio bestelakoetan behin betiko likidazioa egingo da udalak duen informazioa oinarri hartuta.

4.- Baja aurkezteak ondoreak izango ditu tasaren kuotan adierazitakoaren ondoko denbora-tarte naturaleko lehen egunetik aurrera, eta hala badagokio, behin betiko likidazioa egingo da.

III. Tarifa aplikatzeko arauak:

Ez da aplikatuko lurzoru publikoa hauekin okupatzen bada:

a) Fatxadak margotu edo zuritzeko edota ur erretenak eta zorrotenak ordezteko soilik egiten diren instalazioak, baimenak indarrean iraun bitartean.

b) Hesiekin edo babesekin mugatutako eremuen barruan dauden aldamioak, baldin eta euskarri horien kanpoko muga gainditzen ez badute eta aipatu hesiak edo babesak ordenantza honek araututako tasaren xede ez badira.

Okupazioaren lehenengo hiru hilabeteen %50eko hobaria egingo zaie tasei, hau da, baldin eta a) idatz-zatian baldin eta kontenplatuta ez badaude eta fatxadetan obrak egiteko hesiak eta aldamiok jartzeagatik ordaindu beharreko tasei. “

II) TOKIKO ERABILERA PUBLIKOKO LURRA OKUPATZEA MAHAIK, AULKIAK, TRIBUNAK, OHOLTZAK, MAHAITXOAK ETA ANTZEKO ELEMENTUAK JARRITA, IRABAZTEKO XEDEZ

I. Kuota:

A). Mahai eta aulkiekin okupatzea:

Metro koadro edo zatiko eta urte edo zatiko: 16,57€/m².

Lokalen titulartasunean altak edo bajak gertatzen badira, tasa hil naturaletan hainbanatuko da. Bajei dagokienez, udaletxean jakinarazten den eguna hartuko da baja datatzat, interesdunak behar bezala frogatzen ez badu jarduera behin betiko eten dela jakinarazpena egin aurretik. Altei dagokienez, aldiz, Bulego Teknikoak zehaztuko du.

B). Aprobetxamenduaren gainerakoa:

Metro koadro edo zatiko eta aste edo zatiko: 3,63€/m².

II. Prozedura:

A) Tarifa horien arabera exiji daitezkeen zenbatekoak eskatu edo gauzatutako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira.

B) Ordaintzeko betebeharra sortuko da:

- Baimen berria bada, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten den unean. Kuota hileko naturaletan hainbanatuko da, alta egiten den egunean dagokiona ere bai. Hilekoko hainbanatze berbera aplikatuko da bajen kasuetan.

- Aurrez baimendutako aprobetxamenduak edo erabilerak direnean, urte natural bakoitzeko lehen egunean. Dagozkion erroldak edo matrikulak egingo dira, eta horiexek onesten dituzten erabakien bidez ezarriko dira kobratzeko epeak. Ediktuen bidez jarriko dira jendaurrean.

C) Aprobetxamenduaren iraupen zehatza eman ez bada, okupatzea baimendutakoan luzatutzat joko da, baja aitortpena aurkezten ez den bitartean.

III. TOKIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA, IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR IGAROTZEKO SARRERAK JARRITA

I. Kuota:

I. Kuota:

A) Familia bakarreko etxebizitzetara, bi familiako etxebizitzetara edo komunitateen garajeetara sartzeko pasabideak. Komunitateen garajetzat joko dira jabeen ibilgailuak uzteko tokia duten etxebizitzetara eraikinak.

1. 1 eta 5 ibilgailu bitartean uzteko pasabideak
2. 5 eta 10 ibilgailu bitartean uzteko pasabideak
3. 11 eta 25 ibilgailu bitartean uzteko pasabideak
4. 26 eta 50 ibilgailu bitartean uzteko pasabideak
5. 50 ibilgailu edo gehiago uzteko pasabideak

Pasabide bakoitzeko, honako tarifa hau ordainduko da (€):

	3 m-ko pasabide artean	3 eta 4,5 m artean	4,5 eta 6 m artean	6 m baino gehiago
1	26,98	40,52	54,00	Proporzio berbera
2	80,97	121,49	161,99	Proporzio berbera
3	134,99	202,50	270,00	Proporzio berbera
4	179,97	270,00	359,97	Proporzio berbera
5	224,98	334,22	449,99	Proporzio berbera

B) Eraikinetarako eta industri edo merkataritza lokaletarako pasabideak:

15,27 €/m lineal/urte

II. Prozedura:

A) Tarifa horien arabera exiji daitezkeen zenbatekoak eskatu edo gauzatutako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira.

B) Ordaintzeko betebeharra sortuko da:

- Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten den unean baimen berria bada, kuota hileko naturaletan hainbanatuko da, alta egiten den egunean dagokiona ere bai. Hilekoko hainbanatze berbera aplikatuko da bajen kasuetan.

- Aurrez baimendutako aprobetxamenduak edo erabilerak direnean, urte natural bakoitzeko lehen egunean. Dagozkion erroldak edo matrikulak egingo dira, eta horietan onesten dituzten erabakien bidez ezarriko dira kobratzeko epeak. Ediktuen bidez jarriko dira jendaurrean.

C) AProbetxamenduaren iraupen zehatza eman ez bada, okupatzea baimendutakoan luzatutzat joko da, baja aitopena aurkezten ez den bitartean.

III) Tarifak aplikatzeko arauak

a) Espaloiko pasabideen zabalera jaitsitako zintarriak dituen metro linealen arabera zehaztuko da, espaloiak beheragunea daukanean. Espaloiko zintarria jaitsirik ez badago eta espaloia kendu gabe, lokalera edo orubera sartzeko hutsunearen luzera erabilgarri osoa hartuko da neurritzat.

b) Lokal berberak bi pasabide edo gehiago baditu, lehenengoaren zerga dagokion tarifaren araberakoa izango da, eta gainerakoena dagokien tarifaren % 50ekoa.

c) Pasabideak instalatu, kontserbatze lanak egin, berritu eta kentzeko gastuak eskatzaileen kontura eta kargura izango dira, bai eta aparkalekuen erreserbari nahiz seinaleztatzeari dagozkion gastuak ere.

IV. POSTUAK, BARRAKAK, AZOKAK, IKUSKIZUNAK, ATRAKZIOAK ETA ANTZEKOAK INSTALATZEA TOKIKO ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN, BAITA KALEKO INDUSTRIAK, INDUSTRIA IBILTARIAK ETA ZINEMA FILMAZIOAK ERE

I. Kuota:

a) Edozein motatako ikuskizunetarako barrakak, karruselak, azoketako postuak, etab.			0,33€/m ² /egun
b) Salmenta mota guztietarako beste postu batzuk			0,82€/m ² /egun
c) Azoketako postuak (asteko postu bakoitzeko):			111,99€/sei-hileko
d) Izaera egonkorreko negozioetarako kioskoak			215,37€/urte
e) Horretarako adierazitako lekuak norberak landutako nekazaritza produktuekin okupatzeagatik, egun bakoitzeko edo plaza erreserbatuta:			0,87€/m lineal
f) Bide publikoetan txanponekin dabiltzan eta aisialdirako edo salmentarako diren gailu automatikoak ezartzeagatik, sei-hileko eta m ² edo zati bakoitzeko:			25,84€
g) Bide publikoa edo erabilera publikoko lurrak filmak filmatzeko okupatzeagatik, eguneko, m ² edo zati bakoitzeko:			16,10€

II. Prozedura:

A) Tarifa horien arabera exiji daitezkeen zenbatekoak eskatutako edo gauzatutako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira.

B) Ordaintzeko betebeharra sortuko da:

- Baimen berria bada, erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten den unean. Kuota hileko naturaletan hainbanatuko da, alta egiten den egunean dagokiona ere bai. Hilekoko hainbanatze berbera aplikatuko da bajen kasuetan.
- Aurrez baimendutako aprobetxamenduak edo erabilerak direnean, urte natural bakoitzeko lehen egunean. Dagozkion eroldak edo matrikulak egingo dira, eta horiek onesten dituzten erabakien bidez ezarriko dira kobratzeko epeak. Ediktuen bidez jarriko dira jendaurrean.

C) Aprobetxamenduaren iraupen zehatza eman ez bada, okupatzea baimendutakoan luzatutzat joko da, baja aitortpena aurkezten ez den bitartean.

III) Tarifak aplikatzeko arauak

A) Azokako postutzat joko da okupazioko bi metro linealeko. Neurri hori gaindituz gero, tarifaren prezioa proportzioan handituko da.

B) Lizitazio publikoko prozedurak erabiltzen direnean, emakida, baimena edo esleipena jasotzen duen proposamenaren balio ekonomikoak zehaztuko du tasaren zenbatekoa.

V. ERANSKINA: AISIALDIKO ORTUETARAKO ERABILITAKO LURZATIEN APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA.

1.- ZERGADUNAK

Ordenantza honetan araututako tasa ordaintzeko beharra dute aisialdiko ortuetarako erabilitako udal lurzatiaren aprobetxamendu berezirako baimenak jasotzen dituzten pertsonak.

2.- LURZATIAK

Ordenantza honetan jasotako tarifak Derio udalerrian Aisialdiko Ortuak arautzen dituen Ordenantzaren zehaztutako aisialdiko ortuen lurzatiei bakarrik dagozkie.

3.- ZENBATEKOA

1.- Urteroko tarifa eranskinean zehaztutakoa izango da, eta berbera izango da aprobetxamenduko unitate guztietarako, azalera edozein izanda ere.

4.- KUDEAKETA ARAUAK

1.- Tarifaren arabera exiji daitezkeen kopuruak baimendutako edo egindako aprobetxamendu bakoitzagatik likidatuko dira, eta urtean ezingo dira murriztu, hurrengo atalean xedatutakoa salbuetsita.

Justifikatutako baja edo alta berriak direnean, tasaren zenbatekoa hileko naturaletan hainbanatuko da, horiek formalizatzen diren egunari dagokiona barne.

2.- Aprobetxamendua ematea nahi duten pertsonak alde aurretik aurkeztu beharko dute aisialdiko ortu ekologikoen zozketa arautu behar duen baldintzen pleguan zehaztutakoarekin ados daudela azaltzen duen baimena.

Eskaerak aurkeztu ondoren, eskatzaileen artean lurzatiak esleitze aldera, jendaurreko zozketa egingo da, plegu horren artikuluetan zehazten den moduan.

3.- Baimenak eman ondoren, Udalak baimenari dagokion tasa likidatuko du eta, hala badagokio, gordailua edo fidantza eskatuko du, esleitutako lurzatiaren tarifiaren ezarritako zenbatekoaren % 50, hain zuzen. Hala dagokionean, bien arteko aldea, ordaintzeko epea hilabetekoa izango da eskatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

4.- Ezingo da lurzatiaren erabilera hasi dagokion tasa ordaindu arte eta interesdunek dagokien baimena lortu duten arte. Agindu hori ez betetzeak baimena ez ematea eragin dezake, tasaren eta dagozkion zehapenen eta gainordainen ordainketan eragin gabe.

5.- Okupazioa baimendu ondoren, urtebeteko iraupena izango du, eta berritu ahalko da pleguan adierazitakoaren arabera, alkateak iraungitzea erabaki ezean edo

interesdunak edo, bera hil bada, haren legezko ordezkariak justifikatutako baja aurkeztu arte.

6.- Baja aurkezteak ondorioak sortuko ditu bajaren hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera, eta artikuluko honen 1. atalean xedatutakoa aplikatuko da. Aurka argudiatzen den arrazoia edozein izanda ere, baja ez aurkezteak tasa ordaintzen jarraitzeko beharra ekarriko du.

7.- Urtero Udalak dagokion errolda egingo du, eta bertan lurzatiak erabiltzeko baimena duten subjektu pasiboak agertuko dira, bai eta urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean dagozkien kuotak eta zehaztapen egokiak ere. Hori guztia eskumena duen organoak onetsi beharko du.

5.- ORDAINTZEKO BETEBEHARRA

1.- Ordenantza honetan araututako tasa ordaintzeko betebeharra sortu egingo da:

a) Baimen berrien emakidak direnean, udal titulartasuneko aisialdiko ortuetako lursailak erabiltzea baimentzen denetik aurrera.

b) Aurrez baimendutako emakidak edo aprobetxamenduak direnean, tarifen adierazitako denbora-tarte bakoitzeko lehen egunean.

2.- Tasa honela ordainduko da:

a) Aprobetxamenduen emakida berriak direnean, zenbatekoa udal Diruzaintzan edo Udalak ezartzen duen tokian sartuko da zuzenean. Dena den, aisialdiko ortuko lursailaren aprobetxamendurako baimena jaso aurretik ordainduko da beti.

b) Aurrez baimendutako eta luzatutako aprobetxamenduen emakidak direnean, tasaren erroldetan edo matrikuletan indarrean den araudiarekin bat ezartzen den moduan sartutakoan, urtero.

6.- SALBUESPENAK

1.- Salbuespenak edo beste zerga onura batzuk emateko, toki ogasunari aplikatu dakizkiokeen xedapen orokorretan edo ordenantza honen hurrengo atalean ezarritakoari jarraituko zaio.

2.- Baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea dakarten arrazoi sozialak badaude, tasa ordaintzetik salbuesteko aukera egongo da. Salbuespena Alkatetzak emango du, eta aurretik gizarte langileak txostena egingo du. Orobat, Udalbatza Osoari horren berri emango zaio egiten den hurrengo ohiko bilkuran.

7.-. TARIFA

BAKARRA.101,80 €/urte